

Osasuna

JABIER AGIRRE

Odol-analisiak ulertzeko gakoak

ODOL-ANALISIETAKO zifrak nahaste-borrastea besterik ez dira izaten sarritan jende arruntarentzat, baina gaixoaren osasunari buruzko informazio ezin baliagarriagoa egon ohi da bertan medikuarentzat. Analisiak hobeto ulertzeko gakoetako batzuk ikusiko ditugu ondoren.

Odol-analisi batean zelula eta substantzia asko, eta oso diferentek, neurtu eta kontrolatu ohi dira, baina oraingoan odoleko zelulen kontuak azaltzen saiatuko naiz. Odolak zelula mota asko dauzkan arren, hiru kategoria nagusi hauetakoak izango dira guztiak: globulu gorriak, globulu zuriak edo plaketak.

Globulu gorrien kontaketa

Hemograma ere esaten zaio. Odolean dauzkagun hematien kopurua ematen digu, eta bere balio normala (aurrerantzean BN) 4-5 milioi artekoa da gutxi gorabehera milimetro kubo bakoitzeko. Hortik beherako zifra batek anemia adieraz dezake.

Hematokritoa

Globulu gorriek odolean okupatzen duten bolumenaren portzentajea adierazten duen zifra hori -BN %38tik %49ra bitartekoa da- puripurian dago gaur egun komunikabideetan, eta txirrindularien kasuan lasterketatik kanpo geratzeko arrazoi izatera irits daiteke, maila %50etik gora igotzen bada. Kasu horretan, odola oso "lodia" izaten da, oxigeno asko daramalako, baina horrek mesede egin baino gehiago, ondorio kaltegarriak izan ditzake kirolariaren osasunerako.

Hemoglobina

Molekula hori ezinbestekoa da oxigenoa gorputz osora garraiatu ahal izateko, eta normalean 13-16 gramo izaten dira odol dezilitro bakoitzeko.

Hematien balio horiek analisi batean maila normaletik behera agertzea anemiaren adierazgarri izaten da gehienetan, eta horrek zure odolean oxigeno gutxiago dagoela adierazten

du, eta zuk energia gutxiago izango duzula seguruenik. Hala ere, anemiaren diagnostikoa ezarri aurretik, kontuan hartu behar da emakumeengan badirela anemia izateko arrazoi bereziak, hilekoa batez ere.

Globulu zuriak edo leukozitoak

Gorputza kanpoko eraso eta infekzioetatik babestu eta defenditzeko lanetan aritzen diren zelulak dira. Horien BN 3.500-11.000 bitartekoa da mililitroko. Behera egiten dute hezur-muinak ez baditu zelula horiek sortzen, edo infekzio larrien eta zenbait medikamenturen ondorioz.

Leukozitoen artean, hainbat familia bereizten dira: neutrofiloak (leukozito guztien %38-80 dira baldintza normaletan, eta bakterioek eragindako infekzioen bat dagoenean egiten dute gora), linfozitoak (leukozito guztien %15-49) nahiz monozitoak (osoaren %13ra arte), leuzemia, tumore eta birus edo parasitoek eragindako infekzioetan gehitzen direnak, eta eosinofiloak (leukozito guztien %1-4 besterik ez dira, eta horiek gora eginez gero, parasitoak, alergiak edo asma dagoela susmatu behar da).

Plaketak

Koagulaziorako ezinbestekoak diren zelula horien kopurua 150.000-400.000 bitartean egon ohi da, milimetro kuboko. Globulu gorriak eta leukozitoak baino txikiagoak diren plaketen kopurua maila normaletik behera dagoenean, odola ez dela behar bezala koagulatzen, alegia, odoljarioak ez dira behar bezala "ixten".



Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16